

Kronika-Gogoeta-Kritika

AEKren eta HABEren arteko hitzarmena

Badago dokumentu sinatua. Sinatzearekin batera, 42.000.000 pezeta inguru hartuko ditu AEKk, urtearen buruan hartuko dituen 125.000.000ren herena. Eta hitzarmena sinatzearekin batera, batzordea eratuko da, HABEko eta AEKko launa lagunek osotua, hitzarmenean zehazteko eta lantzeko geratzen diren arazoak aztertu, adostu eta bideratzeko.

Diru-laguntzak aparte -horiek euskaltegi libreentzat dira batez ere aurtengo honetan-, AEKren garaipena da itxuraz onarturiko hitzarmena: Elkarrizketarako eta elkarlanean ipini izan duen ahalegin luzeen historiaren fruitua. Hasteko, AEKren beraren onarpen instituzionala esan nahi du hitzarmenak, horrek euskalduntze-alfabetatzearen prozesuan duen garrantziarekin: aspalditik zuen AEKk herritarren onarpena; ordua zen erakunde publikoen aldetikoa etortzeko! Horren euskaltegiak eta gau-eskolak normaltzeko bidea zehaztea aipaturiko batzordearen eskuetan geratzen da; baita irakasleak onartzeko baldintzak eta prozesua adostea ere; alde horretatik badirudi gairak egiten dela orainarteko HABEren jokabidea, bere aldetik horretarako baldintzak ezartzekoa. Baina badago kezkatzekorik... Eusko Jauriaritzak hitzarmena onartu zuen bilera berean onartu zuen, baita ere, HABEko ikastetxeak ixtea. Ezaguna da, horiek itxita egon direla ikastaro honetan, ikasleentzat behintzat. Ez dute eskolarik eman. Hemen ez gara sartuko HABEren istilu luzearen azterketan. Baina hasteko esan beharra dago oso larria dela, euskara irakasten ihardun diren 60 inguru irakasle beraien lanbidetik ateratzea. Euskalgintzako bestelako lanpostuak beraientzat sortzen badituzte, gaitzerdi. Zer esan nahi du, ordea, bilera berean AEKrekiko hitzarmena onartu eta HABEren ikastetxeak ixteak? Lehen begiratuan irudiko luke, Jauriaritzak uko egiten diola helduen euskalduntze-alfabetatzearen alorreko eskabidea betetzeko funtsezko erantzunkizunari, eginkizun hori udaletxean eta euskaltegi "pribatuen" eskuetan uzten baitu. Nola erantzungo dio HABEek herritarren euskara ikasteko eskubi-deari?

Hain zuzen ere, hitzarmena onartu baino aste gutxi lehenago Bilbon izan genuen manifestaldi handia, AEKk antolatua, euskara ikasteko herritarren eskubidea aldarrikatzeko, 100.000tik gora sinadura eskabide berberarekin bildu ondoren. Onarturiko hitzarmenean esalditxo bat dago 4. puntuan, kezka horri nolabait erantzun nahi diona: "gizarteak euskara ikasteko erakutsitako nahiari erantzuteko beharrezko ikusten diren euskaltegien zerrenda eta euskaltegi bakoitzaren ikasle-kopuru subentzisionagarria" erabakiko du batzordeak. Bihurriregia eta ilunegia da esaldia; eta bide bihurrietan galtzea ere erraza da, batez ere iluna baldin bada. Gainera nahiak ez du eskubidearen indarrik. Herritarrek eskubidea baldin badute euskara ikasteko, eskabidea bultzatu beharko lukete erakunde publikoek, euskararen aldeko politika positiboa egin nahi badute behintzat. Eskubidearen gain landu egin behar da herritarren nahia, eskubidea.

Poztekoa da AEKren aitormena eta horren arazo larrien konponbideratzea -benetan konpontzeko bide luzea egon daiteke oraindik-. Aspalditik euskalgintzaren alorrean erakunde publikoen eta erakunde herritarren artean geneukan auzi mingarrietakoa izan da AEKrena. Baina horrek bere oinarriari eta bere betiko izaerari eutsi beharko dio, batzordearen negoziazioetan eta ondoren, herritarren euskara ikasteko eskubidearen errebindikazioa defendituz eta horri erantzun praktikoa emateko markoa eratuz.

Hori argi gelditzen baldin bada hitzarmenaren ondoko erabakietan eta AEKren ondoriozko jokabideetan, benetan AEK bihur daiteke datozen urte luzeetan euskararen berreskurapenaren eta normalkuntzaren prozesuak behar duen herri-mugimendua- ren barruko erakunde motore eta ardatz. Baina beste hiru baldintza ditu beharrekoak AEKk, euskararen aldeko herri-mugimenduan funtzio garrantzizko hori betetzeko: a) Aipaturiko oinarriko errebindikazioari eta funtzioari eustea; b) horri begira bere buruagan konfiantza sendotzea eta bere erantzunkizunaz jabetzea; d) gizarteak lehen- dik eta orain Jaurlaritzak aitortu bide dion sinesgarritasuna lantzea, bere barrutik hobeto eratuz, sendotuz eta gorpuztuz.

Jakina, esperantza eta konfiantza guzti horiek honako hipotesi honen gain daude ipinita: HABEren eta AEKren arteko hitzarmena ez dela une bateko irtenbide izango, eta sinaduraren ondoko elkarrizketa zintzo eta leiala gauza izango dela AEKren arazoari luzaroko konponbidea emateko, batetik, eta herritarren euskara ikasteko eskubideari erantzun tinkoa emateko, bestetik. Hipotesiak huts egingo balu, beldur naiz ikaragarriko frustrazioa erakarriko liekela euskalgintzan lanean dihardutenei eta herritarrei oro har. Guztion eginkizuna da, datozen asteotan HABEren eta AEKren arteko elkarrizketak hurbildik jarraitzea eta aurrera begira urrats finkoa izan daitezela eskatzea. Gainera, helduen alfabetatze eta euskalduntzearen alorrari oinarri berriak jartzeko helburuari begira izan beharko dute elkarrizketa horiek, benetan herritarren esperantzari erantzungo badiote. AEKrekin batera beste zenbait talde eta erakunde ere ari da alorrean, HABE eta udal euskaltegiekin batera. Guztien arteko elkarrizketa eta koordina- zioan gauzatu beharko du aurrera begira landu beharreko plangintza berriak.

Erakunde publikoek ezin dute "dimititu" eskubide horri erantzun premiatsua emateko duten erantzunkizunean. Bestalde, AEKk berak beti aldarrikatu izan du bere "publikotasuna", kontzeptu horren adiera juridiko soila gaindituz. Erakunde publikoen eta erakunde herritarren elkarlanerako marko egokia eratuz gero, bateratu ahal izango dira haien erantzunkizun instituzionala eta honen zerbitzu "publikoa", euskara ikasteko herritarren eskubideari gero eta egokiago eta zabalago erantzuteko moduan.

Euskaldunon Egunkaria eta Jaurlaritzaren arteko hitzarmena

Ekainaren 30ean hitzarmen bat sinatu zuten Euskaldunon Egunkariak eta Eusko Jaurlaritzak. Egunkaria Sortzen-ek duela lau urte 'erdi abiatu araziko herri ekimena eta Eusko Jaurlaritza bat etorri dira Euskaldunon Egunkaria bultzatzeko helburuan. Atzean geratu da eztabaida giroa eta elkarlanari heldu beharra azpimarratu dute bi aldeek.

Hitzarmenean jasotzen denez, Egunkaria-k pribatu izaten jarraituko du lege aldetik eta independentzia, zabaltasuna, profesionaltasuna eta aniztasuna gordeko ditu. Hau da, Euskaldunon Egunkaria-ren Oinarriak errespetatuz eta gordeaz egin da hitzarmena.

Honez gero ezagun denez, Egunkaria-k 70 milioi pezeta jasoko ditu aurten, publikitate instituzionala normaltasunez iritsiko zaio eta hemendik aurrera Jaurlaritzak kontutan hartuko du urteroko bere aurrekontuetan. Honen aurrean, Jaurlaritzak ordezkari bat izango du Egunkaria-ren Administrazio Kontseiluan (91ko apirilean eskaini zion postu hori Egunkaria-k Jaurlaritzari), Egunkaria-k hitz-eman du akordioen bidean jarraituko duela eta batzorde bat osatuko da bere garaian Jaurlaritzak prestatu egitasmoa aztertu eta hobekuntzak proposatzeko

Horiek dira hitzarmenean dauden puntu zehatzak. Baina garrantzikoena, Egunkaria-k esan duen moduan, zabaldutako bidea da. Akordio honek ez ditu konpontzen Egunkaria-ren arazoak (70 milioi oso gutxi dira Egunkaria-ren aurrekontuan) baina konponbidean jartzen ditu.

Eremu berri bat zabaldu da Egunkaria eta Jaurlaritzaren artean: Elkarlanaren eremua. Urtetako mesfidantzak gaingitu eta aurrera begira egitasmo egokiak prestatzea izango da apustua. Apustu zaila eremu berri eta ezezagun horretan, baina egin beharrekoa.

Espero dezagun orain zabaldutako bide honetan jarraituko dutela Egunkaria-k eta Jaurlaritzak eta euskalgintzan diharduten beste hainbatekin ere antzeko bideak jarriko direla martxan.

* * * * *
*

Entziklopedia eta Klasikoak

Elhuyar-ek landuriko Hiztegi Entziklopedikoaren aurkezpenean entzun ahal izan genuen Joseba Arregiren ahotatik, euskarak badituela dagoeneko edozein hizkuntzak beharrezkoak dituen erreferentziazko materialen hiru zutabeak: Euskal Klasikoak, klasiko unibertsalak eta Entziklopedia unibertsala.

Honako hauek adierazi nahi zituen seguruenik hizlariak: Euskal Editoreen Elkarteak argitaratzen ari den euskal literaturako bilduma, "Klasikoa" izenekoa, hain zuzen ere

-dagoeneko 60 obra edo argitaratuta dituzte-; Itzultzaileen Elkartearen ardurapean Ibaizabal argitaletxea argitaratzen ari den literatura unibertsaleko obra nagusienen bilduma; eta han bertan aurkezten ari zen Hiztegi Entziklopedikoa- lehen hiztegi entziklopediko osoa, publizitate orriak zioena-. Hirurek badute lotura handirik elkarrekin.

Ez dago zalantzarik kultura modernoari eta zibilizazio unibertsalari irekia egon nahi duen hizkuntzak horrelako argitalpenak behar-beharrezkoak dituela. Eta gainera, zorionez, ez da hiru horietan agortzen euskaraz egiten ari diren ahaleginak: oso aintzakotzat hartzekoa da beste bilduma bat, filosofiako eta zientzietako munduko ehun obra handienak -nagusienak?- euskaraz ematen ari dena, eta "Klasikoak" izenez doana, hori ere. Agian laugarren zutabea izan daiteke, horrela euskal kulturaren etxea bere teilatua hartzeko moduan egon dadin.

Hala ere, gehiegixto eta optimistegia dela uste dut Kulturako Sailburuak atera zuen ondorioa: horrelako tresnak eskuan, inork ez dauka aitzakiarik euskaraz jakiteko eta euskaraz bizitzeko. Euskaraz jakiteko, behar bada ez; baina euskaraz bizitzeko, bai. Egia esan, euskaraz jakitea eta euskaraz bizitzea, biak oso lotuak doaz, Txepetek erakutsi digunez. Euskaraz bizitzeak, bestelako kultur eskaintza askozaz zabalagoak eta ugariagoak eskatzen ditu, euskaraz egindakoak: literatur kreazio berria, edozein sailletako liburuak, edozein motatako komunikabideak, antzerkia, zinema... Euskaldunak badaki, ordea, hizkuntzazko atzerrian bizi beharrean gertatzen dena, kultura baldin bada norberaren aberria. Euskararen Aholku Batzordeak bere azken txostenean nabarmenduta duenez, "Euskararen kultur tresna berriak sustatu eta era egituratuan lantzeari garrantzi handia eman behar zaio datozen urteetako politikan".

Orain arte eraiki duguna euskal kulturaren bordatxoa besterik ez da; palazio handiaren ametsak alde batera utzita ere, euskal kulturaren etxe egokia eraikitzeko, bertan eroso bizi ahal izateko, lan handia geratzen da oraindik aurrera begira. Kulturaren edozein alorretan; eta baita -bereziki?- erreferentziazko materialak aberasten, zabal-tzen eta modernotzen.

Azken horri begira, hain zuzen, argitaraturiko "Klasikoak" bildumek, ahalegin txalagarriak izanik ere, osagarritzko elementu erreferentzialak lantzea eskatzen dute. Urruti daude oraindik Encyclopedia Britannica-k 1952tik eskaintzen duen "Great Books of the Western World" bilduma bezalako tresna izatera iristeko. 150tik gora obra klasikoen, Mendebal zibilizazioaren adierazgarri nagusi direnen, bilduma batez ere ez litzateke hain miresgarria; bildumaren baliagarritasun handia lehen bi tomotan, "The Synopticon, An Index to the Great Books" izenekotan dago, hain zuzen; horiek eskaintzen dituzten eskemak, gaien aurkibideak, bibliografiak, "cross-references" edo kontzeptuen gurutzadurak; horiek egiten du benetan erreferentziazko bilduma baten aberats eta modernoa.

Helmuga horretatik oso urruti gaude oraindik, "Encyclopedia Britannica"ren modukoren bat edukitzetik ere oso urruti gauden bezala. Galanta da aurrera begira geratzen zaigun eginkizuna, "Klasikoetan", entziklopedigintzan eta erreferentziazko tresna guztietan: galanta, eta gogo handiz hartzekoa.

Ez digute balio Kulturako Kontseiluaren atzera begirako baikortasunak eta aurrera begirako "ezkortasunak".

Omenez eta oroimenez: Klaudio Harluxet

Abenduaren 16an hil zitzaigun Klaudio Harluxet, hil luzetako gaitza jasan ondoren. Handik bi egunetara izan zen hileta, Baionako San Andres elizan. Adierazgarria Iparraldetik eta Hegoaldetik bertara bildu zen jendetza, sail ezberdinetako jendea. Urtearen hasieran galdu genuen Joxemi Zumalabe; urtearen amaieran joan zitzaigun Klaudio: biak minbiziak jota. Bien artean kidetasun handirik aurki dezakegu, euskal kulturgintzaren eragile eta enpresari biak. Galera handiak 1993an euskal kulturgintzan izan genituenak.

Euskal kulturako langile eta lankide handia galdu dugu: gazterik! Bera ez zen euskal kultur arloko jakineko eta bakarrekoa; alor ugartan zuen bere gogoa jarria eta proiektu anitzetan hartu zuen parte bizia: Ikastolan, aldizkaritzan, Unibertsitatean... Hizkuntzalari profesional izan gabe, euskararen normalkuntzarako eta modernizaziorako programa askotan eman zuen bere lana eta bere aholkua... Informatikaria zen Klaudio, ikastez, irakastez eta lanez. Informatikako enpresaria era bai. Eta informatikaren baliabideak euskal kulturako eta euskararen normalkuntzako proiektuetarako sortzen eta egokitzen saiatu zen. Euskal kultura eta informatikaren kultura lotzen erakutsi zigun, sinetsita zegoenez bera, euskarak eta euskal kulturak ez daukatela inola ere informatikaren apostua galtzerik gaur egun. Euskararen bizi-arazo zen hori, berarentzat.

UZEIko hiztegegintzaren programa informatikoen diseinuan, EUSENORen entziklopedigintza-proiektuan, eta euskalgintzako beste hainbat talde eta erakundetan hurbileko aholkulari, partaide eta lankide izan zen bera. Zalantzarik gabe, garrantzikoa eta sarritan erabakiorra izan zen beraren eragina, euskalgintzaren munduan baliabide informatikoa konfiantzaz eta indarrez sartzeko. Hizkuntzen industriaren mundu informatizatuan euskara tinko sartu nahian dabilen honetan, Harluxeten aintzindaritzak aitortu beharko da.

Klaudio ez zen zarata handikoa, baina bai sakonetik kezkatua eta arduratua gure Herriaren etorkizunaz. Bere ixilean gure Herriko arazo sozial, kultural eta politikoetan oso gertutik zebilen. Euskalgintzako herri-mugimendua ere oso barrutik jarraitzen zuen: behin baino gehiagotan etorri zen EKBren asmoez, proiektuez eta ibilbideez jakinminez eta galdezka ere. Hanka bat Iparraldean eta bestea Hegoaldean, beretzat ez baitzegoen Euskal Herria bakarra baizik.

Esker ona zor diogunez, bihoakio bertatik eskerrik beroena, gure omenarekin eta oroimenarekin batera.

EKB2000